

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Esteban Aranzabe Etxeberria

*Gaztelu,
Gipuzkoa
(1937)*

Aurkibidea



Biografia



Goienetxe baserrian jaioa,
belaunaldiz belaunaldi
maiorazko bidez pasatzen
joandako etxean; izan ere,
Joxe Manuel aita zen hangoa,
eta aitona, eta birraitona...
Ama ere Gaztelukoa zuen,
Tiburcia, Ixurrenea
baserrikoa. Baserritarrak
zituen gurasoak eta hala izan
da bera ere, txiki-txikitatik
baserrian gogor lan eginez
eta kaleko lana uztartuz atera
izan baitu bizimodua aurrera.
19 urterekin, igeltsero-
lanetan hasi zen Antonio
Amondarainekin,
soldaduskara joan zen arte.
Bueltan, nagusia aldatu zuen,
baina lanbide berarekin
jarraitu zuen. 29 urterekin,
[Kattalin Zubelzu](#)
[Ayestaran](#)ekin ezkondu zen
eta bi seme-alaba izan
zituzten. Ezkondu zen urtean
sartu zen Perot lantegian, eta
erretiroa hartu arteko lanak
hantxe egin zituen. Besteak
beste, soldaduskako garaiaz,
Gazteluko bizitzaz, eta
baserriaren lehenaz nahiz
orainaz hitz egin digu.

Zintak

GAZ-006

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Data:** 2012-01-17
- **Iraupena:** 69 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com